



Erabiltzaileen formakuntza
(Informazio-alfabetazea-ALFIN)
Haur hezkuntza-Lehen hezkuntza

LIBURU ARTEAN

Lehen hezkuntzako 3. zikloko ikasleei zuzendutako formakuntza saioa da. Helburuak:

- Udal liburutegia fisikoki non kokatzen den ezagutzea eta gune desberdinak bereiztea (Txiki-txoko, informazioa eta erreferentzia, informatika, ikasteko gunea etab.).
- Liburutegiaren arau orokorrak ezagutzea (liburutegiko txartela, mailegua, ordenagailuen erabilpena, jarrera etab.).
- Informazio liburuak eta literatura liburuak bereiztea. Adin bakoitzerako egokiak diren liburuak hautatzen ikastea.
- Formazio eta literatura liburuen eta beste materialen sailkapen sistema ezagutzea, liburutegian materialak bilatzen ikastea seinalizazioa jarraituz.
- Signatura ulertzea, signatura sortzen ikastea eta materialak signaturaren arabera kokatzen ikastea.
- Informazio beharrak identifikatzen ikasi, materialaren bilaketarako egin beharrekoa aztertu eta behar dena bilatzen ikastea.
- Liburutegiaren katalogoa: nola erabili eta nola egin bilaketa emankorrak.
- eLiburutegiaren funtzionamendu orokorra.